

# SEXUAK JAINKOTUTAKO DEABRUA



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Mesopotamia, duela 4.000 urte. Sumeriar Inperioaren gainbeheraren ondoren, Asiriako erresuma indartzen hasi zen eta, horrekin batera, asiar mitologiaren pertsonaia sorta zabala taxutzen. Ordukoak dira Nisroch deabru arrisku-tsua aipatzen duten idazkun zaharrenak.

Jatorriz, Asiriako suaren eta argiaren jainko Nuskuren eta haren nagusi Ninurtaren zerbitzaria zen Nisroch. Gizakiren batek bi jainko horiek gogaitzen bazituen, Nisrochek eta haren emazte Kenelek sexuaren bidez ordainarazten zioten egindakoa: iraintzailearentzat ondorio latzak izango zituen sexu praktikak egitera bultzatzen zuten, nagusiki intzestua eta adulterioa. Intzestuak heriotza zigorra ekarri ohi zuen bi ibaien arteko inperioan eta, ohikoa denez, emakumeek ere adulterioa biziarekin ordaindu ohi zuten, eta gizonek, aldiz, nahikoa zuten isuna ordaintzearekin.

Deabru bikoteak irudimen eta trebezia sexual harrigarria erabiltzen zuen gizaki hilkor gaixoak galbidera bultzatzeko. Batetik, jakina, horrek beldurra eragiten zien jainkoak mindu zituztenei. Baina, bestetik, deabruen dohainak inspirazio iturri preziatua ziren orgia eta festetan. Halakoetan geroz eta ohi-koagoa zen Nisroch gurtzea eta haren laguntza erregutzea.



BRITISH MUSEUM

*Nisroch jainko asiriarra landareak bedeinkatzen ageri da erliebe honetan, baina haren iragana bihurriagoa izan zen: sexua bultzatzen zuen deabrua zen.*

Hala, denboraz, deabruaren ospeak gora egin zuen. Mesopotamiako panteoi jendetsuan horrelako eragin eta hierarkia gorabeherak ohikoak ziren. Nusku nagusiak, adibidez, garrantzia galdu zuen nabarmen eta, azkenean, Nisroch haren gainetik jarri zuten gizakiek. Horrenbestez, Babiloniar Inperioaren garaiko oholtxotan Nisroch ez da deabru gisa aipatzen, jainko gisa baizik. Eta Biblia hebrearrak dio Senakerib erregea "Nisrochen tenpluan" hil zutela, Kalhun. Egun, indusketei esker badakigu tenplu hura ez zela

Nisrochena, Ninurta nekazaritzaren eta gerraren jainkoarena baizik. Baina hebrearrek biak nahastu izanak adierazten du deabru ohiak hartutako garrantzia.

Ospeak izaera aldarazten die izaki hilezkorrei ere, eta Nisrochek kutsu sexual eta ludikoa galdu zuen pixkanaka. Sexua emankortasunarekin lotu eta jainkoen lorazain bihurtu zen jainkotutako deabrua. Eldarnio eta gehiegikeria sexualen protagonista izanak, erretiro lasaia izan zuen Marduk eta Ishtarren barazkiak zaintzen. ■



GREZIAKO KULTURA MINISTERIOA

## Odisea-ren zatirik zaharrena

Greziako Olinpiako santutegian grekoz idatzitako buztinezko plaka aurkitu dute, Homeroren *Odisea*-ren hamairu bertso dituena. Zehazki, Odiseok Eumeo mirabearekin daukan elkarriketa jasotzen dute bertso horiek.

Greziako Kultura Ministerioaren arduradunen arabera, idazkunaren lehen azterketatik ondorioztatu daiteke erro-

matar garaikoa dela, K.o. III. mendea baino lehenagokoa. Epopeia ezaguna K.a. VIII. mendean konposatu zutela uste da eta, beraz, aurkitu berri den idatzia originala baino milurte bat berriagoa litzateke. Eta, hala ere, datazio zehatzagoak hasierako hipotesia baieztatuko balu, orain arte aurkitutako Odisearen zati idatzirik zaharrena litzateke. ■